

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Heritarrei hizkuntza ikasketak egiteagatik (gaztelania, euskara, ingelesa edo frantsesa) ematen zaizkien laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak

2024ko abenduaren 16ko 267/2024 Dekretuaren bidez, alkateak erabaki du onestea herritarrei euskalduntzeak sortutako gastuetarako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak. Hauek dira gastuok:

Hizkuntzak ikasteak sortutako gastuetarako heritarrei ematen zaizkien laguntzen oinarri arautzaileak

1. Betekizun eta baldintza orokorrak

1.1. Udalak beka emango dizkie Bastidan erroldatuta egon eta hizkuntzaren bat ikasten ari diren guztiei.

1.2. Bekak 2023/2024 ikasturtean (2024ko urrira arte) egindako ikastaroen arabera onetsiko dira eta honela lagunduko dira diruz:

2023ko urria eta 2024ko iraila bitartean eskatzaileak sei hilabetez baino gehiago langabezian egon badira edo ikasketa ofizialak egin badituzte, beka irakaskuntza gastuen ehuneko 95ekoa izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

2023ko urria eta 2024ko iraila bitartean eskatzaileak ez badira egon sei hilabetez baino gehiago ez langabezian ez ikasketa ofizialak egiten, beka irakaskuntza gastuen eguneko 80 izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

Beka, gehienez ere, hau izango da:

- Langabezian egon edo ikasketa ofizialak egiten ari diren onuradunak: 400,00 euro.
- Langabezian ez dauden edo ikasketa ofizialak egiten ari ez diren onuradunak: 200,00 euro.

2. Onuradunaren definizioa

Hizkuntzak ikasteko ematen diren beken onuradunek baldintzak hauek bete beharko dituzte:

- Bastidako udalerrian egotea erroldatuta.
- Eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzea edo, hala badagokio, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izana egiaztatzea, HABEk edo gainditze probak ofizialki egiaztatzen dituzten beste erakundeek ziurtagiria emanda.

3. Euskara ikasteko 2024an emango diren beken gehieneko zenbatekoa eta aurkeztu beharreko agiriak

3.1. 2024ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 3.000,00 euro baino gehiago. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko gehieneko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

3.2. Eskaera eta agiriak Bastidako Udalaren erregistro orokorrean, 7 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

3.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Eskaera orria, euskara ikasteko beka jasotzeko.
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Bertaratze-ziurtagiria, kasuan kasuko euskaltegiak edo hizkuntza eskola ofizialak emana.
- Zinpeko adierazpena, jasotzen duena eskatutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik.
- NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korrante batean sartzea eskatzen bada.

4. Laguntzak izapidetzea

Udalaren administrazio zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera.

Bastida, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

DANIEL GARCÍA RUIZ